

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak 2016ko Sanferminetako talde-bortxakeriaren epaiaren aurka errekurtsua jarriko du kontraesanak ikusten direlako

*Bat dator herritarrek erakutsitako nahigabearekin, gehienak epaiarekiko haserre agertu baitira*

Ostirala, 2018.eko apirilak 27

Nafarroako Gobernuak iragarri du, zerbitzu juridikoen bitartez, dagoeneko lantzen ari dela 2016ko Sanferminetako talde-bortxakeriaren epaia ezagutu ondoren jarriko duen errekurtsua.

Gaur emandako prentsaurrekoan, exekutiboaren bozeramaile María Solanak eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko kontseilari Ana Ollok azaldu dute epaian kontraesanak egon daitezkeela; izan ere, alde batetik, biktimaren deklarazioetan hautemate sendoak argumentatzen, justifikatzen eta frogatzen dira, baina ez dute balio izan indarkeria edo larderia ikusteko, sexu-erasoaren delituan sartzeko.

Solana kontseilariak baieztatu du, 10 egun balioduneko epean, Nafarroako Gobernuak dagokion helegitea jarriko duela Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean.

Bestalde, Olo kontseilariak berretsi du exekutiboa bat datorrela herritar gehienek erakutsitako haserrearekin. “Gobernuak bat egiten du atzo Nafarroako eta estatuko dozenaka herritan herritar gehienek epaiaren aurrean erakutsitako nahigabe eta haserrearekin”.

Exekutiboak honela gogoratu du: “larderia eta bortxakeria testuinguruan, delitua sexu-erasoa izan zela ulertuz hartu du parte epaketan”.

Gizarteak, berretsi du, “ezin du honako hau bezalako kasu bat ulertu intimidaziorik eta indarkeriarik gabe. Arreta, gizonezko bortitzen portaeran jarri orde, emakumeen erreakzioan jartzea inolako ikuspeirik ez duen irakurketa besterik ez da, genero-desberdintasunaren aldetik begiratuta”.

“Sexu-indarkeria nesken eta emakumeen Giza Eskubideen urratze nagusietariko bat da, emakumeen bizitzaren eta askatasunaren aurka erasotzen duen eta emakumeak berriz biktima bihurtzen dituen indarkeria. Berdintasunaren aldeko politika publikoak bultzatzen jarraituko dugu, indarkeria hori prebenitzeko eta errotik ateratzeko biderik eraginkorrena bezala hartuta”. Era horretako bortxakeria jasaten duten emakumeak dauden bitartean, esan du, “gizarte patriarkal hau desmuntatzeko lanean jarraituko dugu”.

Olo kontseilariak gehitu du era horretako epaiak ez direla ulertzen

ikusita gobernuak “behin eta berriz azpimarratzen dutela sexu-erasoak salatzea ezinbestekoa dela. Ulertezina da emakumeen aurreko jazarpen kolektiboa aisiarako zigorrik gabeko modua eta modu normalizatua izan daitekeenik zenbait gizonaren pentsamendu matxistan”, amaitu du kontseilariak.